

ERASMUS+, AMERIKA LATINA ETA BESTE NORAKO IKASLEEN BETEBEHARRAK

IKASLEEN BETEBEHARRAK

Ikasleak Europako Batasuneko herrialde bateko nazionalitatea izan beharko du edo bizi den herrialdean errefuxiatu, herrigabe, egoiliar iraunkor, egoitza baimena indarrean duen aldi baterako egoilar edo ikasketa egonaldiako baimena izan beharko du mugikortasunak iraun bitartean eta hartu duen herrialdeko legeria beteaz.

Mugikortasuna egingo duen ikasturtean ere EHUn matrikulatuta egon behar du ikasleak.

Iraupen luzeko mugikortasuna baino ezin da baliatu urte akademiko bakoitzeko. Erasmus programaren kasuan, ikasturte berean Erasmus mugikortasun ikasketak + mugikortasun Erasmus praktikoekin (Ikasketa Planean sartuta ez dauden enpresetan borondatezko praktikak) edo BIP mugikortasunarekin (Blended Intensive Programme) konbinatu ahal izango da.

Atzerriko unibertsitatean, **gehienez, ikasturte bat** pasatu ahalko da.

Egonaldiaren iraupena EHUK eta helmugako unibertsitateak sinatutako aldebiko akordioan jasotakora egokitu behar da. Helmuga bat ikasle batentzat sinatuta badago eta 9 hilabeteko egonaldia, plaza horretarako hautatutako ikasleak 9 hilabeteko egonaldia bete beharko du. Errektoreordetzak aintzat hartuko ditu egonaldiaren iraupena aldatzeko UPV/EHUKo ikastetxeetako nazioarteko mugikortasun-programen arduradunek egindako eskaerak, betiere behar bezala justifikatuta badaude. Aztertu ondoren, onartu edo baztertu egingo ditu.

Ikasleak 12 hilabeteko mugikortasun bat egin ahal izango du ziklo bakoitzeko Erasmus ikasketa mugikortsun programan (gradu, master eta doktoregoan). 12 hilabete hauen barruan Erasmus Praktikak delako programan eta BIPen pasatutakoak ere zenbatuko dira.

SEPIE LAGUNTZA EKONOMIKOAK ERASMUS+ PROGRAMAN.

Erasmus+ mugikortasuna izango duten ikasleek SEPIEk ezarritako laguntza ekonomikoa ere izango dute. Diru laguntza hori jasotzeko, laguntza hitzarmena izenpetu beharko dute eta ezarritako gainerako dokumentu-prozedurak bete beharko ditu. Dirulaguntzaren zenbatekoa dirulaguntzaren hitzarmenaren 3. klausularen arabera zehaztuko da.

ORik beretzat gordetzen du jasotako zenbateko handiagoak itzultzeko eskatzeko eskubidea, baldin eta hasieran aurreikusitakoa baino mugikortasun laburragoa egiten bada; horretarako, egonaldiaren amaierako ziurtagiriaren datak hartuko dira kontuan.

Egonaldia handitzeko finantzazioa aurrekontu erabilgarriaren arabera izango da, eta ez da bermatzen.

Gainerako laguntzak kasuan kasuko deialdiari jarraiki arautuko dira. Informazioa Nazioarteko Harremanen web orrian emango da argitara, "Diru laguntzak" atalean.

ERASMUS mugikortasun baten onuradunak "ERASMUS ikasle gutunean ezarritako eskubideak eta betebeharrak dituzte (ikus webgune honetan: <https://www.ehu.eus/documents/2099535/33445825/13.+Carta+estudiante+erasmus+22.pdf/a93cec5e-67eb-2d4d-6630-4c420eb9f7b7?t=1649326564240>) eta atzerriko unibertsitateko arauak bete beharko dituzte han egon bitartean.

ATZERRIKO UNIBERTSITATEAN EGIN BEHARREKO IZAPIEDEAK

Mugikortasun plaza bat esleitzeak, **EZ dakar ezinbestean atzerriko unibertsitateak zeu onartu behar izatea**. Atzerriko unibertsitatean onar zaitzaten egin beharreko izapide guztiak ikaslearen erantzukizuna izango dira. Oso garrantzitsua da unibertsitate bakoitzak onarpen eskaerak aurkesteko jartzen dituen epeei begira adi egotea (batzuetan sarean egin behar izaten da); izan ere, unibertsitate gehientsuenek ez dituzte onartzen epez kanpo iristen diren eskaerak.

Ikasleen erantzukizuna da trukeak irauten duen bitartean harrerako herrialdean legearen arabera sartzeko eta egoteko behar diren baimenak edo dokumentuak (bisak, egoitza-txartelak, etab.) lortzeko eta, hala badagokio, berritzeko izapideak egitea.

Halaber, bere ardura izango da ostatuaren gestioa unibertsitate horretan dagoen bitartean, bai eta unibertsitateak edo helburuko herrialdeak ezarriko luketen beste edozein baldintza nahitaezkorena ere. Arlo honetan, unibertsitate batzuek nahitaez ezartzen dute beraiek edo gobernuak eskaintako osasun aseguru baten kontratazioa. Aseguru hauek kontratatuta ere bidaiako laguntzarako aseguru ere kontratatu behar da nahitaez, aberriratzeari, heriotzarik

egotekotan, eta osasun garraioa barne hartzen dituen, helburuko tokian kontratatutako aseguruak estaldura hauek ez baditu.

Ikaslea ez badute onartzen esleitutako tokian, Nazioarteko Harremanen bulegoak beretzat gordetzen du (ikastegiko koordinatzailearekin batera), arrazoiak aztertu, eta beste toki bat esleitzeari onespina emateko eskubidea.

Ikasleak ez du tasarik ordaindu beharko atzerriko unibertsitatean, jatorrizko unibertsitatean ordaintzen baitu. Hala eta guztiz, atzerriko unibertsitateak diru kantitate txikia eskatu ahal izango dio aseguruaren, ikasleen sindikatueterako afiliazioaren edo material ezberdin erabilearen (fotokopiagailuak, laborategietako produktuak eta abar) gastuei aurre egiteko, bertako ikasleei eskatzen zaien berbera izango dena.

KONPROMISO AKADEMIKOA

Ronpromiso akademikoa (OLA) ikastegiko koordinatzailearekin ezarritako ikasketa kontratua da. Bertan, atzerriko unibertsitatean egingo diren irakasgaiak eta EHUn ikasketa planetako kredituak adierazi beharko dira, eta kontratua loteslea izan dadin, bai ikaslearen sinadura, baita bi unibertsitateen baimen sinadurak ere izan beharko ditu. Ezin dira inolaz ere sartu dokumentu horretan EHUn "gainditutzat" edo "suspentsotzat" jotako irakasgaiak. Eta ezin izango da eskatu irakasgai horien aitortpena atzerriko unibertsitatean egindako irakasgaien truke. Dena dela, matrikulatutako irakasgaiak egin ahalko dira, bai, baina horietara aurkeztu ez eta "aurkezteke" kalifikazioa badute.

Ikasketa planak eskatzen duen kreditu kopurua baino gehiago matrikulatu behar bada, eskatutako gutxieneko kopurura iristen ez delarik, koordinatzailearen baimena eskatu beharko da, bestela ezin izango baita matrikulan jaso.

AL eta BH programetan nahitaezkoa den gutxieneko kreditu kopurua (EHUn matrikulatuak) honako hau da:

- **Gutxienez, 12 eta, gehienez, 15 kreditu; 3 hilabetetako egonaldietarako.**
- **Gutxienez, 24 eta, gehienez, 30 kreditu; 5 hilabetetako egonaldietarako.**
- **Gutxienez, 48 eta, gehienez, 60 kreditu; akademi ikasturte osoko egonaldietarako.**

Erasmus+ programaren kasuan, ezinbestekoa izango da iraupenarekin bat etorrira zehaztutako gehiengo kredituetan matrikulatzea.

Ohar horien desbideratzeak Nazioarteko Mugikortasuneko zuzendariaren oniritzia behar duten salbuespen justifikatuak izango dira.

Arlo honetan, gogoan izan behar da Gradu Ikasketetan Kredituak Transferitzeko eta Aitortzeko Arautegiko 12. artikularen arabera, ikasturte bakoitzean gehienez ere 60 ECTS

aitortuko dira.

IKASKETEN ERRENDIMENDUA

Ikasleak harrera unibertsitatean errendimendu ona duela egiaztatu beharko da. **Hots, egonaldian, konpromiso akademikoan jasotako kredituen erdia gainditu beharko du gutxienez. Ehuneko hau gainditu ezean eskatuko zaio mugikortasuna egiteko eman zaizkion laguntzak itzultzeko.**

HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK

Atzerriko unibertsitatean ikasgaiak emango diren hizkuntzaren jakintza maila nahikoa izan beharko da. Unibertsitate batzuek maila espezifikoak eskatzen dute.

Deialdi honi erantsitako dokumentuetan agertzen den informazioaz gain, unibertsitateen webguneak kontsultatu behar dira, jakiteko zein den ikasleak egiaztatu beharko duen maila plaza bakoitzerako. Maila hori deialdiaren datan izan beharko da egiaztatuta.

Aipatutako eskakizunak gorabehera, Erasmus+ mugikortasuna egiten dutenek hizkuntza azterketa ¹ egin beharko dute OLS plataforman, Nazioarteko Harremanen Bulegoak emandako jarraibideak aintzat hartuta, egonaldia egitera abiatu baino lehen. Ikasle guztiek egin beharko dute OLSko azterketa, berdina da egonaldi fisikoa edo birtuala egin behar duten.

OLS proba egiteko, ikasleak posta elektroniko bat jasoko du bere posta pertsonalean ols.internacional@ehu.eus helbidetik, mugikortasuna hasi baino hilabete lehenago.

Ikasleak hizkuntza mailaren ebaluazioa egiten ez badu, ezin izango du mugikortasuna egin eta Erasmus+ programatik kanpo geratuko da. Horrek esan nahi du ez duela jasoko ez bekarik ez atzerrian egindako ikasketen aitorpen akademikorik.

Informazio gehiago:

¹ Hizkuntza-testak ikaslearen maila ezartzen du mugikortasuna baino lehen, eta ez du zerikusirik mugikortasuna egiteko eskatzen den derrigorrezko mailaren ziurtagiriarekin.

<https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/sareko-laguntza-linguistikoa>

MUGIKORTASUNAREN GAUZATZEA

Ikaslea ezarritako egunean hasiko da helburuko ikastegian. Hala ez bada, mugikortasunari uko egin diola joko da. Berehala eman beharko zaio egoera horren berri errektoreordetzari, GAURen finkatutako bitartekoak erabilita. Izan ere, jakinarazi ezean, baztertuta geratuko da EHUK gerora egingo dituen mugikortasun programen deialdietako hautapen prozesuetatik.

Mugikortasunaren iraupena edo lauhilekoa aldatuz gero, hasi baino lehen, ezinbestekoa izango da koordinatzailearen oniritzia; betiere, eskaeraren arrazoiak aztertu ondoren. Oniritzirik gabe aurrera egingez gero, "egonaldiaren luzapenak" atalean aurreikusitako egoeran egongo da ikaslea.

Finkatutako epeetan (hilabete bat mugikortasuna hasi edo bukatu denetik), egonaldia eta berorren iraupena egiaztatu beharko dira, egonaldi hasierako (*Certificate of arrival*) eta amaierako (*Certificate of Attendance*) egiaztagiriekin. Atzerriko unibertsitateak behar bezala sinatu eta zigilatu beharko ditu bi horiek. Era berean, egonaldi egiaztagiriak adierazten badu egin beharreko denbora baino hilabete gutxiago egin dituzula han, egiaztatu gabeko hilabetei dagokien dirua itzultzeko eskatuko zaizu.

NAHITAEZKO DOKUMENTAZIOA

Gizarte Segurantzaren Europako Osasun Txartela eskuratu beharko da (ERASMUS programaren kasuan), eta atzerriko unibertsitateira iritsi aurretik, bidaiarako aseguru bat egin beharko da, aurreikusitako egonaldi OSOAN gerta litezkeen gorabeherak estaltzeko, aberriratzeko, heriotzarik egotekotan, eta osasun garraiorako estaldura mugagabea izango duena. Kontsultatu aseguruaren sekzioa web orrian.

UPV/EHUK mugikortasunaren inguruan eskatuko lituzkeen dokumentu guztiak bete eta aurkeztu beharko dira. **Mugikortasunari hasiera eman aurretik**, GAUR plataformako profilean dagoen subentzioen hitzarmena, sinatuta, eta aseguruaren kopia bat aurkeztu beharko dira koordinatzaileari. Kontsulta ezazu aseguruaren sekzioa web orrian.

ERASMUS mugikortasunen kasuan, ORIk Europako Batzordeak programa kudeatzeko erabiltzen duen tresna informatikoan Certificate of Attendance erregistratzen duenean, hark jakinarazpen automatiko bat bidaliko die onuradunei, azken txostena osa dezaten.

ERASMUS mugikortasunen kasuan, ERASMUS, bulego honek jasotako *Certificate of*

Attendance delakoaren datak tresnan sartu ondoren, tresna horrek jakinarazpen automatikoak igorriko dizkie onuradunei IKASLEAREN AZKEN TXOSTENA betetzeko. Ezinezkoa da mezu horiek zehazki noiz igorriko diren esatea; beraz, "ikasle" posta korporatiboko helbideari adi egoteko eskatzen dizugu, mesedez, ikasturtea amaitu bitartean.

Mezu elektroniko bat jasoko duzue eu-corporate-notification-system@ec.europa.eu helbidetik, inkesta bete dezazuen esteka baten bidez 30 egun naturaleko epean. *Spam* karpetara irits daiteke.

Inkesta **DERRIGOR** bete behar da. Bete ezean, jasotako laguntza itzultzeko eska daiteke, eta ERASMUS Mugikortasunaren aitorpena gal daiteke.

Hala eskatzen duten herrialdeetan egonaldia egiteko edo bertara sartzeko beharrezkoak diren bisatuak eskuratzeko izapideak egin beharko dira; eta joan aurretik egin beharko da, halaber, atzerriko unibertsitatean sartu ondoren herrialde horretan egoteko beharrezkoa den beste zeinahi administrazio izapide. Ez da Nazioarteko Harremanen bulegoaren erantzukizuna izango izapide hori egitea ahaztu zaiola-eta ikasleak mugikortasunerako aukera galtzen badu.

EGONALDIAREN LUZAPENA

Egonaldi-luzapenak ikasleak helmugako unibertsitatean daudenean bakarrik eskatu ahal izango dira, eta, gutxienez, hasieran aurreikusitako aldia amaitu baino hilabete lehenago, betiere ikasturte berean 12 hilabeteko egonaldia gainditu gabe.

Ikasleak bere koordinatzaileen berariazko baimena lortu beharko du (jatorria eta destinoa). Gainera, eskatzailearen EHU zentroak idatziz eskatuko dio Nazioarteko Harremanetarako Bulegoari baimena handitze hori egiteko. Luzapena kasu hauetan bakarrik emango da: ikasketa-kontratuan (Learning Agreement-Konpromiso Akademikoa) dagozkion egokitzapenak egiten direnean, EHUko Dashboard programan, Erasmus programaren kasuan, eta aseguru mediko gehigarriaren balio-epearen luzapenaren kopia aurkezten denean.

Ez du ekarriko, luzapeneko hilabetei dagokien finantza laguntza jasotzeko eskubidea, aurrekontu-zuzkidurarik ez badago.

EZ BETETZEAK

Betebehar hauek guztiak inolako azalpenik gabe bete ezean, hainbat ondorio etor litezke: beka ezeztatzea, ikasketa kontratua etetea, finantza hitzarmena ezeztatzea (eta ondorioz, aurretik jasotako finantza-laguntza guztia itzultzeko derrigortasuna) eta errektoreordetzatik gerora sustatutako zeinahi mugikortasun programatako hautapen prozesuetatik kanpo geratzea.

Era beran, kreditu hizkuntza eta bestelako baldintzarik beteko ez balitz helburuko unibertsitatera iristerakoan, bertan behera gertuko da automatikoki programan.

Aurreko atalean dirua itzultzeko ezarritako beharra osorik edo zatika bete ezean eta egoera honek dirauen bitartean, debekatuta egongo da matrikula, titulu emate, kalifikazio berririk egitea, bai eta espediente akademikoari buruzko informazio oharrak lortzea ere. Era berean, ezin izango dituzte EHUren gainerako zerbitzuak erabili.

OHARRA: unibertsitateak ez du bere gain hartuko ikasleak sortzen duen inolako gasturik (hegazkin txartelak, ostatu erreserbak, etab.), programan parte hartzeko ezinbestekoak diren baldintzetakoren bat ez betetzeagatik, edo arrazoi pertsonalengatik azkenean, ikasleak bidaia egin ezin badu.